

**8. GAIA: AFEKTIBITATEAREN
GARAPENA. EMOZIOEN
KONTROLA ETA OREKA HAUR
HEZKUNTZAN.**



107. argazkia: Zein atsegina zaren!!!





8. GAIA: AFEKTIBITATEAREN GARAPENA. EMOZIOEN KONTROLA ETA OREKA HAUR HEZKUNTZAN.

8.1. BIZIPEN AFEKTIBOAK (EMOZIOAK ETA SENTIMENDUAK)

Afektibitatea da bizi-egoera kontziente guztietan gizakiarengan pizten diren barne-bizipen guztiak, egoera horrek beregan duen eraginaren ondorioak eta mailak kontuan izanda. Hala, bizitza afektiboa honako hiru funtzio hauek betetzen ditu (*Lleixá, 2000*):

- Funtzio energetikoa: afektibitateak, motibazioaren eta inpulsibitatearekin batera, jarduerak martxan jartzeko energia ematen dio gizakiari.
- Zeinu-funtzioa: Afektibitateak norberaren sentimenak eta besteenak alderatzen ditu, eta bi horien arteko egokitzapen bat ezinbestekoa da.
- Egoeren balioespen-funtzioa: Datuek egoerak balioesten dituzte, alegia, besteek egiten dituzten balioespenen arabera: atsegina edo desatsegina da, interesgarria edo interes gabea, tristura eragiten du, edo poza....

Afektibitatearekin lotuta, emozioak eta sentimenduak doaz. **Emozioak** krisialdi egoeretan sortzen diren bizipen afektiboak dira, eta askotan sorrarazten dituzten izaera organikoko adierazpenak (gorritzea, izerdia, negarra...). Jaioberriengan, negarra agertzen da bere beharrak ase gabe dituenean, eta irribarrea ase daudenean. Emozio atseginak, zein desatseginak beharrezkoak dira haurraren nortasunaren moldaera orekatu bat izateko. Haurtzaroan, agertzen diren emozio arruntenak honako hauek dira: beldurra, jakin-mina, haserrea, zeloak, poza.... (*Alonso, 2005:18*).

Lehenengo emozioak jaiotzen garenetik eskuratzen dira, eta, *Palouren* ustez (*2004:111*), honako hauek dira: maitasuna, beldurra, amorrua, tristura eta poza.

Maitasuna: haurtzaroan amarekiko maitasuna garatzen da, egonkortasuna ematen dio umeari, eta, berarengandik bananduta sentitzen denean, angustia eta gupida sortzen zaio umeari. Maitasunarekin, beste pertsonarekiko hurbiltasuna sentitzen da eta talde baten barruko partaidea izatea ere. Maitasunarekin batera, errespetua, ardura, zaintza eta ezagutza datoz. Amak beroa, eta ziurtasuna ematen dio umeari. Ume guztiek maitatuak izatea bilatzen dute.



108. Argazkia: A ze poza!!!!

Beldurak ihes egiteko edo ezkutatzeko joera sortzen du, eta gizakia mehatxu baten aurrean dagoenean agertzen da. Beldurrari esker, umea babestu egiten da, babespean jartzen da. Beldurak, ez bada gehiegizkoa, zuhurtzia sortzen du, baina gehiegizkoa bada fobiak sor ditzake. Lehenengo sei hilabeteetan, umeak beldurra baino gehiago urduritasuna sentitzen du. 6. hilabetetik aurrera, pertsona ezagunak eta ezezagunak ezberdintzen ditu, eta ezezagunak mehatxu bat dira. Bi urtetik aurrera, iluntasunarekiko beldurra agertzen da. Gure kulturean, beldurra izatea ez dago ondo ikusita, ahultasun edo koldartasuntzat jotzen baita.

Amorrua eta haserrea, askotan, batera datoz, eta askotan agresibitate-jokabideak probokatzen ditu. Umea haserretzen da amorruekin 18 hilabetetik aurrera, eta geroz eta haserrealdi luzeagoak izaten ditu lau-bost urte betetzen dituen arte. Gerorako, bere amorrua hobeto kudeatzen ikasten du. Palouk tentsioak liberatzeko eta agresibitatea bideratzeko borroka-jolasak erabiltzea proposatzen du.

Tristura: desioak edo norberaren proiektuak lortzen ez direnean sortzen da, eta, normalean, gelditasuna eta isolatzeko gogoia sortzen du. Bakardadeak eta sentimen negatiboek tristura sortzen dute. Hautzaroan, tristura sortzen da afektu falta eta maitasun falta dagoenean edo umea bakarrik gelditzen denean. Negar egiteak eta hitz



egiteak pena arintzen laguntzen du, beraz, ahal den neurrian negarra ez da moztuko, eta umearekin hitz egiteko guneak bilatuko dira.

Poza: sentitzen dugu gure espektatibak betetzen direnean, arintasuna eta indarra sentitzen baita orduan. Alaitasunaren adierazgarria irria edo irribarrea da. Badaude pertsona batzuk pozik egoteko joera dutenak, alaitasuna eta poza ematen dien guztia lehenago ikusten baitute. Gure gizartetan oso ondo balioetsita dago.

Sentimenduak emozioak baino egonkorragoak dira, iraunkorragoak eta konplexuagoak. Garapenean, geroago agertzen diren bizipen afektiboak dira, eta irudikapen mentala eskatzen dute. (*Medrano, 2000: 75*) Sentimendua berezia eta intentzioskoa da. Sentimendu batzuk norberari lotuta daude (auto-estimua, handiustea, harrokeria, norberekeria), beste batzuk, besteei lotuta (adiskidetasuna, enpatia, lagunartekotasuna, lankidetzak); eta beste batzuk, sinismenarekin lotuta (etikoak, estetikoak, erlijiozkoak, araukikoak, ezagutzazkoak...).

Hezkuntza prozesuan lortu behar diren helburuen artean, **emozioen oreka eta kontrola** aipatu behar dira. Horretarako, haurrak bere bizitzako lehen etapetan bizi diuen emozioei dagozkien esperientziak garrantzi handia dute. Familiako giro barea, lasaia, haurrak baldintzarik gabe onartzen duena eta afektuz beteta dagoena, nortasun sano eta orekatu bat garatzeko esparru egokia da. (*Lleixá, 2000:79*) Haur-eskolako giro afektiboak ere ezaugarri horiek izan behar ditu. Pertsona batzuegan, pozik, animatua edo irribarretsu egoteko joera nagusitzen da eta, beste batzuegan, berriz, triste, kezkatu, adregabetua egoteko joera. Hezitzaileak kontu handiz jokatu behar du desberdintasun indibidualak ez areagotzeko.

8.2. UMEAK ADIERAZTEN DITUEN JOKABIDEAK:

Motrizitateari esker, umeak adierazten du nolakoa den, eta nola egon nahi duen munduan. *Aucouturier*-ek (2004) dioten bezala, bere ziurtasuna, bere frustrazioak, arauak onartzeko neurria, emozioak eta espazio ulertzeko modua adierazten baitigu mugimenduaren bidez. Konpetentzia sozioafektiboak aztertu nahi ditugunean, umearen jokaerak behatuko ditugu:

Inibizio eta inibiziorik eza. Nortasunaren arabera, ume batzuek parte hartzen dute gauza guztietan, beste batzuek, berriz, baztertuta gelditzen dira beti. Haur Hezkuntzako irakasleak pazientzia handiarekin jokatu behar du ume guztien integrazioa lortu ahal izateko. Ahots lasaiak, begirada begietara zuzentzeak, aurpegiko keinu goxoei eta gertura dituen tresnen erabilerak markatuko dute diferentzia hori. Beren gertuko jostailuekin jolastuz, beraren arreta erakarriko dugu eta, batzuetan, bera gerturatuko da, baina, edozein modutan, pazientzia izan beharko dugu. (*Llorca, Sánchez, 2003:113*)



Agresibitatea; helduak gutxien onartzen duen jokabidea da, eta umeari errua egozten zaio. Umearentzat, besteekin harremanetan jartzeko modu bat da, besterik ez. Baina, Haur Eskolan eta psikomotrizitate gelan, ezin dugu inor mindu. Batzuetan, agresibitatea arreta erakartzeko modu bat da, eta, beste batzuetan, tentsio deskargatzeko modu bat. Oldarkortasunaren zergatia ulertu behar dugu erabaki bat hartu baino lehen, baina, beste ume baten ongizatea arriskuan dagoenean, moztu behar da, arauak gogoratuz (inori ezin diogu minik egin).

Jokabide sozialak: (Llorca, Sánchez, 2003:118) Elkartasuna (bestea ulertzen saiatzea), tolerantzia (besteekiko errespetua izatea), kooperazioa (besteekin kolaboratzea helburua bat lortzeko) konpartitzea (ematea eta jasotzea besteak ematen diguna); hori dena Haur Eskolan garatu behar da.



109. argazkia: Haurtzaroan, emozioak oso inportanteak dira.

Autoestimua: denek besteek aintzat hartzea behar dugu, oreka emozionala eskuratzeko eta zoriontsuak izateko. Norberari buruzko ideiak besteen iritzietan eta esperientzietan oinarritzen dira. Haur Eskolan, jarduerak norberaren afirmazioa eta konfiantza eskuratzeko planteatuko dira.

Arauk onartzea: espazio edo egoera bakoitzean, jarrera ezberdinak espero dira, eta arau ezberdinak daude. Arauek egon behar dute mugak markatzeko eta portaeraren autoerregulazioa lortzeko.



Arauek hausten direnean, batzuetan probokazio bat bilatzen da eta ez da izango umea gai ez delako portaera kontrolatzeko.

Umeei, garapen emozional orekatua izan dezaten, **jokabide onuragari batzuk** zabaldu behar diegu, eta *Palouk (2005:65-72)* honako hauek azpimarratzen ditu besteak beste:

- Zintzoa eta leiala izatea: egia esatea beti, besteen kofiantza irabazteko.
- Konfidantza izatea norberaren gaitasunetan eta besteen gaitasunetan.
- Sentikortasunarekin entzutea besteak esan behar diguna.
- Pazientzia entzuteko eta bakoitzaren erritmoa errespetatzeko.
- Erantzukizuna konpromisoak hartzeko.
- Malgutasuna, edozein egoerataro egokitzeko.
- Armonia norberak bere buruarekin gustura egoteko.

Komunikazioari eta bizikidetzari dagozkien azturak direla eta, umeak gizarte-talde batean integratzen saiatzen da. Hori lortzen duen neurrian, besteekin bizitzen ikasteaz gain, bere ahalmenak nola garatzen diren ikusteko sentazioa esperimintatzen du. Besteekiko harremana bilatzen duen haurrak aurkituko duen erronka bere autonomia ziurtatzeko modua da. Bere autonomia eskuratzen ziurtasun handiagoa lortzen duen neurrian, besteekin erraztasun handiagorekin komunikatuko da. Hori lortzeko, haurren autonomia indartu behar da, saiatu behar da pertsonen arteko harremanak errazten, eta lehen harremanetarako esperimintazioa bultzatu behar da. (*Lleixá, 2000:198*) Hori dela eta, hurrengo puntuan, trebetasun sozialak azalduko ditugu.

8.3. TREBETASUN SOZIALAK, ETA BALIOAK. ZER DIRA? NOLA GARATZEN DIRA?

Balioak tratatu behar dira eta gatazka psiko-sozialak konpondu behar dira. Horretarako, balioak tratatzeko, zenbait autoreren ikuspegia ikusiko da. Balioak eta trebetasun sozialak ezinbestekoak dira pertsonaren egokitzapenean, eta, batez ere, haren ingurune psikoafektiboa egonkorra izan dadin. Hala, harreman positiboak izango ditu bere gelakideekin eta helduekin. Trebetasun sozialak garatzen badira, besteekiko harremanak positiboak izango dira, eta bai maila pertsonalean, bai gizarte mailan, irabazle sentituko da, eta bere burua eta besteak hobeto ezagutuko ditu. (*Vallés, 1996*). Egoera sozialen ezagutza **konpetentzia soziala** deitzen da eta “juizio ebaluatibo orokor bat da, egoera sozial konkretu batean pertsonaren portaera soziala baloratuz” *Jokabide sozial konpetente* batekin honako helburu hauek lor daitezke (*Vallés, 1996*):

- Besteek modu positiboan balioesten gaituzte
- Besteekin ditugun harremanekin disfrutatuko dugu



- Besteek gure sentimenduak eta desioak ezagutu dituzte.
- Zerbait zehatza lortuko dugu, gure helburua.
- Arazoak ebitatuko ditugu
- Arazoak konponduko ditugu.
- Besteek gurekiko duten irudia positiboa izango da.

Balioak garatzen ditugunean, trebetasun sozialak lantzen ari gara, eta, hezkuntzaren ikuspuntutik, ikasleen arteko harremanak garatzea oso inportantea da. (*Monjas, eta de la Paz, 2000*), Ardura eskatzen denean, ikasleek garapen hobea izaten dute, garapen soziala; ondorioz, psikologikoa eta akademikoa hobetuko dira.

Vallésen ustez trebetasun sozialak (1996) besteekin harremanetan jartzeko moduak dira, portaerak eta gauzak esateko modua. Haren ustez, ikasleen autoestimua eta arazoak konpontzeko baliabideak garatu behar dira. Umeei elkar ezagutzen badute, hobeto balioetsiko dute elkar eta hobeto ulertuko dute bestearen ikuspegia.

- Autoestimuekin lotutako trebetasunak.
 - o Besteekin ditugun harremanetan positibo izatea, eta ez izatea ez oldarkorra eta ez-pasiboa.
 - o Arazo bat sortzen denean, ahal den azkarren konpontzea.
 - o Gauzak ondo ateratzen ez direnean, egoeraren alde positiboa bilatzea. Zailtasunaren aurrean frustraziorik ez izatea, alternatiba berriak bilatzea.
 - o Ardura izatea.
 - o Ilusioa jartzea gauzak egiterakoan.



110. argazkia: Haur Hezkuntzan garrantzitsua da ilusioa jartzea jarduera guztietan.

- Hitzezko trebetasunak.
 - o Elkarrizketak hasia.
 - o Elkarrizketak egitea.
 - o Elkarrizketak ondo bukatzea.
 - o Besteari entzutea
 - o Keinu desegokiak ez egitea.
 - o Ahotsaren tonua zaintzea eta baita ere, begirada norantz bideratzen dugun.
 - o Kexak gizalegez adieraztea.
 - o Komeni denean ezetz esatea.
 - o Norberaren eskubideak defendatzea.
- Taldean lan egiteko trebetasunak:
 - o Taldeko partaide guztiak, edo gelako umeak ezagutzea.
 - o Umeen zaletasunak eta gustuak ezagutzea.
 - o Parte-hartzea bultzatzea denek parte hartuz.
 - o Arauak ezartzea.
 - o Besteek kontatzen dutena aditzea.
 - o Denen iritzia kontuan hartzea.
 - o Ideiak ematea.
 - o Gauzak konpartitzea.
 - o Besteei buruz gauza positiboak esatea.
- Gatazkak konpontzeko trebetasunak:



- o Gatazkaren aurrean besteen sentimenduak ulertzen saiatzea.
- o Besteak ulertzea.
- o Besteen ideiak eta jokabideak errespetatzea.
- o Besteek gure postura ulertzea.
- o Tratuan gozoa izatea.
- o Barkamena eskatzea zerbait ezegokia egin dugunean.
- o Irtenbideak bilatzea arazo bat dagoenean.
- o Besteekiko pentsamendu desegokiak ekiditea.
- Ardurak hartzeko trebetasunak.
 - o Hartutako konpromisoak betetzea.
 - o Gauzak ondo irten daitezten saiatzea.
 - o Besteak ez kaltetzea.
 - o Erantzukizuna duena aintzat hartzea.
 - o Besteak ulertzea.
- Errespetuarekin lotutako trebetasunak:
 - o Ez jotzea eta ez bultzatzea.
 - o Gure eskubideak defendatzea.
 - o Biraorik ez esatea.
 - o Besteak ez ikaratzea.
 - o Inor ez lotsaraztea.
 - o Denekin jolastea.
 - o Ez borrokatzea.
 - o Besteen gauzak errespetatzea.
 - o Ez molestatzea.
 - o Ez probokatzea.
 - o Ez haserretzea.
 - o Besteekin ez sartzea.



111. argazkia: Besterekiko errespetua izatea inportantea da.

*Hellison*ek ustez, (1995) kirolaren bidez, banakako zein taldeko erantzukizuna garatzen du; ondorioz, esfortzua eta errespetua garatu egiten da. Norberak kontrolatuko ditu bere inpultsoak. Horretarako, ardura hartzeko zenbait maila ezartzen ditu. Guk bakarrik azpimarratuko ditugu Haur Hezkuntzarako interesgarriak direnak:

- Oinarrizko ardurak: errespetua eta esfortzua:
 - o I Maila. Autokontrola. Besteen eskubideak errespetatzea.
 - Besteen eskubideak eta sentimenduak kontuan hartzea, guztien interesak errespetatuz.
 - o II. Maila: Esfortzua:
 - Norberaren hobekuntza bilatzea.
 - o III. Maila: Taldean lan egitea.
 - Arauak errespetatzea, gela barruan, eta jokoan.
 - o IV. Maila: Laguntzea
 - Besteak animatzea.
 - Ez haserretzea.

Trebetasun sozialak garatzen direnean, gatatzak konpontzen jakitea oso inportantea da:

- Jolasean sartzeko eta ateratzeko aukera ematea, batez ere, haserretzen direnean edo gatatzak sortzen direnean. Beren *portaera aldatzeko aukera* eman behar zaie; hori dena, irakaslea serio dagoela, baina oihukatu gabe.



- Erantzun negatiboak daudenean, *pentsatzeko aukera* eman, bere portaera nolakoa izan behar den ikusteko. Ateratzen da jokotik, baina berak nahi duenean sartuko da beste portaera batekin. "Pentsatzeko izkinara" joango da.
- Zerbait ezegokia egiten duenean, *barkamenak eskatzeko aukera* ere bai. Baina norbaiti mina eman badio, minutuko pertsonak konpentsatuta sentitu behar du. Gomendatzen da elkarrekiko enpatia bilatzea, bestearen kasuan egongo balitz umea nola sentituko litzatekeen adieraztea eta galdetzea.

Horretarako, autore batzuek sozializazioa bilatzen duten jolasak eta jarduerak proposatzen dituzte; honako hauek (*Hernández, eta Rodríguez, 2000; Paniago, 1999*):

1. *Integrazioa bilatzekoak*: talde baten barruan daudela sentitzeko, taldeko kohesioa hobetzeko eta lagun artean ondo sentitzeko.
2. *Kooperaziokoak*: Integrazioa bilatzeko, autonomia garatuz, norberaren interesak taldekoen aurrean adierazi, eta taldearekin konpartitzea. Gauza gehiago lor daitezke guztien ahalegina bateratzen bada.



112. argazkia: Itxoin... lagunduko dizudala!.



3. *Arreta eta memoria garatzeko jarduerak:* arreta, kontzentrazioa eta memoria garatzekoak, sentsibiltatea garatuz.
4. *Azkartasuna bilatzekoak:* azkartasun mentala lortzeko, erabakiak hartzen ikasteko, konformismoari ihes egitea irtenbide berriak bilatuz.
5. *Enpatia bilatzekoak:* Tolerantzia bultzatzea nahi da, honetarako besteren kasuan jarri behar dugu. Besteekiko errespetua lantzea, aniztasuna aberasgarria dela onartuz.
6. *Adierazpena garatzekoak:* Norberaren errekurtso adierazgarriak balioestea eta erabiltzea. Norberaren gorputz adierazpena garatzea.
7. *Pertzepziokoak:* Inguruan gertatzen dena behatzea, komunikaziorako bide berriak bilatuz.
8. *Konfiantza lortzekoak:* Inguruan ditugun pertsonengan konfiantza jartzea eta besteekiko ardurak hartzea.

8.4. **GARAPEN EMOZIONALA: ADIN EZBERDINAK, BEHAR EZBERDINAK.**

Oso inportanteak dira Haur Hezkuntzan jasotzen diren estimuluak, eta, horren arabera, nortasuna osatuz joango da. Lehenengo urtetan, umeek garapen emozionalean sentikortasun handiagoa izango dute. Oraingo harremanak geroko harremanetarako erreferentzia bihurtuko dira (*Horno, 2004: 28*).

Lehenengo urtean: gurasoekiko maitasuna garatzen da, aldaketa asko gertatuko dira urte horretan eta oreka emozionala oso inportantea da.

Urtebete-3 urteko epealdia: norberaren kontzientzia hartzen du, begiratzen denean ispilu batean bere burua errekonozitzen baitu. 3 urte- sei urte: Besteen desioak eta beharrak, bereak ezagutu eta gero, ezagutzen ditu, eta besteekin komunikatzen hasten da. Arau soziala onartzen da.

Umea bakoitzaren eboluzioari kasu egin behar zaio, eta umeak besteen konzientzia hartu beharko du bestea errespetatzeko eta hala esperientziak eta sentsazioak konpartitu ahal izateko. (*Llorca, Sánchez 2003:139*)

Garapen afektu-emozionala, motrizitatearen ikuspegitik, badu bere garrantzia, eta, modu horretan, (*Palou, 2004:192*) motrizitatearekiko irakasleak honako alderdi afektibo hauek bultzatuko ditu:

Umeari konfidantza eman behar dio egiten duenarekin eta egin dezakeenarekin.

Lagunduko dio autoerregulazioa bilatzen: bere gorputza entzuteko, eta bere beharrei erantzuteko.



Borondatezko kontzentrazioa eta atentzioa bultzatuko du: arreta jartzeko egiten duen gauza guztietan, eta ikusteko zer gertatuko zen beste eran egingo balu.

Norberaren kontzientzia hartzen lagundu: norberaren arduraduna izateko norberaren aurrerapenak eta beharrak balioesteko, eta gorputzaren segmentu guztiak integratzeko.

Jakin-mina bultzatzea, gauzak probatzeko eta bizitzarekin disfrutatzeke. Animatu gauzak probatzera.



113. argazkia: Arauak errespetatzea, ordena, adibidez, ezinbestekoa da.

Garapen afektibo-emozional horretan komunikazioa ezinbestekoa da, baina umea komunikatzen da entzun diotela sentitzen duenean, ez dago komunikatzeko era bakar bat; hitzezko komunikazioari ez hitzezkoa gehitu behar diogu, horregatik, keinuei atenditzea ezinbestekoa da. (Aucouturier, 2004:195)

8.5. BIBLIOGRAFIA:

- ALCANTARA, J. (1990) *Cómo educar la autoestima*. Barcelona: CEAC.
- ALONSO, M.T. (2005) *La afectividad en el niño*. Colección Pedagogía de la primera infancia. Sevilla: Trillas.
- ALVAREZ HERNANDEZ, J. (1990) *Habilidades Sociales en la educación infantil*. Cuaderno de trabajo. Madrid: Escuela Española.
- ALVAREZ, A.; ALVAREZ-MONTESERIN, M. A.; CAÑAS, A. JIMÉNEZ, S. RAMÍREZ, S. PETIT, M. J. (1990) *Desarrollo De las habilidades sociales en niños de 3-6 años* (Guía práctica para padres y profesores) Madrid: Visor.
- AUCOUTURIER, B. (2004) *Los fantasmas de la acción psicomotriz*. Barcelona: Grao.



- FERNANDEZ, I. (1998) *Prevención de la violencia y resolución de conflictos*. Madrid: Narcea.
- FERNANDEZ, P.; MELERO, M. A. (1995) *La interacción social en contextos educativos*. Madrid: Siglo XXI.
- GIL, F. Y LEÓN, J. M. (1998) *Habilidades sociales. Teoría, investigación e intervención*. Madrid: Síntesis.
- HELLISON, D. (1995) *Teaching Responsibility Through Physical Activity and Sport*. Champaign, Illinois: Human Kinetic
- HERNANDEZ, V.; RODRIGUEZ, P. (2000) *Expresión corporal*. Madrid: editorial CCS.
- HORNO, P. (2004) *Educando el afecto*. Barcelona: Grao
- LLEIXA, T. (2000) *Haur hezkuntza 0-tik 6 urtera*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Bilbo. [Itzulpenaren koordinatzailea. Xabier Etxaniz. Jatorrizko izenburua: Educación Infantil de 0 a 6 años. Paidotribo. Barcelona. 1998]
- LLORCA, M.; SANCHEZ, J. (2003) *Psicomotricidad y necesidades educativas especiales*. Málaga: Aljibe.
- MEDRANO, G. (2000) Haurra eta bere hazkuntza. Mugimenari, adimenari, afektibitateari eta gizarteratzeari dagozkien alderdiak. In Lleixá, T. (koord.) *Haur Hezkuntza 0-tik 6 urtera*. Bilbo:UPV/EHU (1.liburukia)
- MONJAS, M. I.; de la PAZ, B. (2000) *Las Habilidades Sociales en el Currículo*. Convocatoria de ayudas a la investigación educativa para 1995 del Centro de investigación y documentación educativa (CIDE). 1998ko urria. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Colección investigación. ISBN: 84-369-3414-8
- PALOU, S. (2004) *Sentir y crecer. El crecimiento emocional en la infancia*. Barcelona: Grao.
- PANIEGO, J.A. (1999) *Cómo podemos educar en valores*. Madrid: editorial CCS
- VALLÉS, A.; VALLÉS, C. (1996) *Las habilidades sociales en la escuela*. Una propuesta curricular. Madrid: EOS.
- VIZCARRA, M. T. (2003) *Análisis de una experiencia de formación permanente en el deporte escolar a través de un programa de habilidades sociales*.: Servicio Editorial de la UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua Bilbo (doktorego tesien saila)